

Oiartzungo udalerrian uraren kudeaketa arautzeko erregelamendua idatzi aurreko kontsulta publikoa bideratzeko iragarkia

39/2015 Legeak –urriaren 1ekoak, Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak– berrikuntzak ezarri ditu Administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiterakoan; besteak beste, herritarren iritzia eta etorkizuneko arauak ustez ukitu ahal dituen antolakunde ordezkagarrienen iritzia jasotzeko beharra.

39/2015 Legeak –urriaren 1ekoak, Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak– bere 133 artikuluan hau xedatzen du:

“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienenek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauaren helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille eta ez-erregulatzailleak.”*

Oiartzungo Udalak udalerrian uraren kudeaketa arautzeko erregelamendu bat sustatu nahi du, arautegiarekin bat etor dadin eta herritarren beharrei modu egokienean erantzun ahal izateko.

Horretarako, 39/2015 Legeak ezartzen duen prozedura betetzeko, Oiartzungo Udalak erabaki du Oiartzungo udalerrian uraren kudeaketa arautzeko erregelamendua onartu aurretik, aurretiazko kontsulta publikoa burutzea.

Beraz, herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iritiziz gero, parte hartu ahal izango dute ekarpenak aurkeztuz **2021ko maiatzaren 14a arte**, bi bide hauen bidez:

- Posta elektronikoaren postontzi honen bidez: ekarpenak@oiartzun.eus.^[L]_{SÉP}]
- Udalaren Erregistro orokorrean aurkeztutako iradokizunen bidez (Doneztebe plaza, 1) edo erregistro elektronikoaren bitartez, www.oiartzun.eus, ziurtagiri digitalaren bidez identifikatuta.^[L]_{SÉP}]

EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Gaur egun indarrean dagoen uraren zerbitzua kudeatzeko ordenantzak hutsuneak ditu zerbitzua emateko egungo modua eta medioak asko aldatu direlako. Erabateko eguneraketa beharrezkoa da.

ERREGELAMENDUA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Oiartzungo uraren zerbitzua kudeatzeko arautegia zaharkitua dago, 50 urte baino gehiago pasa baitira aurrekoa onartu zenetik eta legedian eta zerbitzua emateko moduan aldaketa esanguratsuak izan dira. Besteak beste, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretua,

Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzen duena eta haren ondorengo aldaketa eta akats zuzenketak.

Beraz, legedian izan diren aldaketak eta ur zerbitzua emateko sisteman eta lanerako moduetan izan diren aldaketei erantzuteko beharrezkotzat jo da Oiartzungo udalerrian uraren kudeaketa arautzeko erregelamendu berri bat onartzea.

ERREGELAMENDUAREN HELBURUAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 25 c) artikuluan jasotzen duenez, udalek, besteak beste, edateko uraren etxez etxeko hornidura, hondakin-uren hustuketa eta tratamenduari buruzko eskumenak gauzatuko dituzte, betiere Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legeekin bat etorritz.

Eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2006 Legearen 17. artikuluko 15. paragrafoan, udalerriek dituzten eskumenen artean, besteak beste, hiri-erabilerako uraren ziklo integraleko zerbitzuak antolatu, kudeatu, eman eta kontrolatzea jasotzen da. zerbitzu horren barruan sartzen dira ur hornidura (goi hornidura edo adukzioa), ur hornidura (behe hornidura), saneamendua edo herriguneetako hondakin urak eta euri urak biltzea eta hiriko hondakin urak araztea.

Eskumen hori erabiliz, Oiartzungo Udalak zuzenean kudeatzen du ur zerbitzua. Erregelamendu honen xedea da ur horniduraren zerbitzua arautzea, bai etxeko kontsumorako bai udalerriko gainerako erabiltzaileentzako, Lanbarren industrialdeko suteen aurkako babesaren barne.

Gainera, Oiartzungo Udalaren eta abonatuak dituzten pertsonen eta hornidura zerbitzuaren titularren arteko harremanak arautzen ditu, baita suteen aurkako zerbitzuaren egiazko edo balizko erabiltzaileenak ere. Zerbitzuaren titularra Oiartzungo Udala da, alde bakoitzerako funtsezko eskubide eta betebeharrak ezartzen dituena.

IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

Erregelamenduaren biderapena beharrezkoa da Udal eskumenekoa den beharrezko zerbitzua arautzeko, egun indarrean dagoena zaharkitua dagoelako eta berridazketa osoa behar duelako.